

Zergatik igotzen da petrolioaren prezioa?

Petrolioaren prezioa izugarri igo da azken urteetan, baina bereziki nabarmen azken urtean, eta horrek munduko ekonomian eragina du, euskal ekonomia barne. Zergatik igotzen da petrolioaren prezioa? Nork igoarazten du?

JUAN MARI ARREGI

1970. URTEAN Brent petrolio upela 10 dolarren azpitik zegoen. 1980an, upeleko 39,5 dolar ziren. 1991ko irailean, upeleko 40,15ean zen prezioa. 2000ko urriaren 12an 43,59an zen. 2007ko urtarrilaren 11n upeleko 51,7 dolarretara iritsi zen. Urtebete pasata, prezioak upeleko 103 dolarretaraino egin du jauzi. Logikoa al da bereziki 2007ko urtarrilean hasi eta gaur arteko igoera azkar eta progresiboa? Zergatik egiten du gora petrolioak? Nork edo zerk igoarazten du petrolioaren prezioa? Mundu osoan baina bereziki Txina, India eta gainerako herrialde emergenteetan hazten ari den eskaeratik al da? Halako eskaeraren aurrean eskaintza eskasia dagoelako ote da? Ala, alderantziz, petrolioaren eskaeria hazi arren, eskaintza ez da eskasa, baina finantza sektorean hainbatek petrolioaren prezioarekin espekulatzen du, beste hainbat lehengaiekin egin bezala?

Denetariko iritziak daude. Petrolioaren eskaera hazteak eragina badu ere, gordinarekin zerikusia duten adituen eta elkartearen iritzi kualifikatuek diote petrolioaren prezioak gora egitearen erantzukizunaren zati handi bat finantza espekulazioari egotzi behar zaiola. Bada zifra zehatza ematen duenik ere: petrolioaren prezioaren eboluzioaren erantzukizuna finantza espekulazioari dagoekio % 80an.

PETROLIOAREN PREZIOAREN BILAKAERA



Finantza espekulazioa

Orain dela bi hilabete Madrilen burututako petrolioaren Munduko Kongresuak garbi esan zuen petrolio horniduraren faltarik ez dela. Alegia, ez dago eskaintza eskasirik eta, beraz, ez da horixe petrolioaren prezioaren hazkundearen arrazoia, mendealdeko zenbait multinazionalak eta gobernuak esaten duten moduan. Hortaz, LPEEko (Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea) idazkari nagusi Abadia Salem El Bradik Madrilen zera esan zuen publikoki: "Asko eta asko aberasten ari dira petrolio falta deneko mitoiari esker". Hain zuzen, hauxe gaine-

ratu zuen: "Merkatuak berriro eskaera eta eskaintzaren arteko harremanaren arabera jokatu balu, prezioek behera egingo lukete".

Testuinguru honetan, nazioarteko ekonomian prestigioa duen George Soros aberats okituak publikoki zera aitortu du: "Espekulazioak gero eta eragin handia du petrolioaren prezioan eta honek burbuilen ohiko itxura parabolikoa du". Ildo berean, Oppenheimer & Co-ko zuzendari gerente Fadel Gheit-ek dio eskaera eta eskaintzaren jokoak ezin duela azaldu prezioa, % 60 baino gehiago haztea, sei hilabete baino tarte laburragoan. Robert Mabro, Oxford Institute of Energy Studies-eko presidenteak eta zuzendari ohiak dio "etorkizunen merkatua"n jokatzaren diren produktuen artean bat gehiago baino ez dela petrolio.

Etorkizunen merkatua finantza tresnen merkatua da, "petrolioaren etorkizunen kontratua" izenekoa.

AEBetako kongresuak berak gaur egun petrolioaren negoziaketaren %70 espekulazioa dela onartzen du

Zer da petrolio upela?

Petrolio upela 159 litroren balioa duen neurri unitatea da eta munduko merkaturik sentikorrenean saldu eta erosteko erabiltzen da.

Zer lortzen da petrolio upel batetik?

✓ %45 produktu ertainak: %38,2 gasolioa eta %6,5 kerosenoa.

✓ %34 produktu astunak: %17,8 asfaltoa eta %16,2 fuela.

✓ %21 produktu arinak: %18,5 nafta eta gasolina, eta % 2,7 GLP.

Petrolioaren prezioaren kotizazioa ezagutzeko orduan bi erreferentzia erabiltzen dira: Brent upela, Europarako, eta Texas upela Amerikarako. Hortaz, munduan petrolioaren prezioaren kontratazioak eta negoziatioak bi bide dituzte. Bata, Amerikako Estatu Batuetan, New York Mercantile Exchange-ren, NIMEXen bidez, non West Texas izenez ezagutzen den petrolio kontratatzen den. Eta bestea, Londresen, Intercontinental Exchange-ren, ICE-ren bidez, non Europarako Brent izena duen petrolio negoziatu eta kontratatzen baita. Beraz, Brent erreferentziako petrolio da European, eta Texas, Amerikan.



Texaseko petrolio ustiaketa, munduan dagoen urre beltz egarria ase nahian.

Etorkizunen kontratuak, bi urtean 1,7tik 8 bilioi dolarretara iritsi dira. Energiaren prezioaren eboluzioari lotutako 630 funts daude. Zer egiten dute mota honetako funtsek? Espekulatu. Etorkizunen kontratu bat erosten edo saltzen dutenek ez dute (salbuespenak salbuespen) fisikoki benetako petrolio upel bat eman edo hartu nahi. Inbertitzaile horiek kontratu horiekin jokatzeko erosi eta gero prezio altuagoan salduta etekina lortzeko itxaropena dutelako; edo, alderantziz, tartea egiteko asmoa dute prezio batean saldu eta geroago prezio baxuagoan erosiz. Beraz, ez dute petrolioaren prezioan interesik, une batetik bestera prezioek duten aldean baizik. Eta nork menderatzen ditu etorkizunen merkatu horiek? Betikoek. Bankak eta finantza erakundeek edo estaldura funtsek. Horiexek dira petrolioaren prezioarekin espekulatzen dutenak eta prezioak gora bultzatzen dituen esku "ikusezina".

Horrenbestez, AEBetako Kongresuan herrialde horretako etorkizunen finantza merkatuen ikuskatzaileak berriki esandakoarekin bat gatoz: "Petrolio gordinaren negozioaren %70 espekulazioa da gaur egun". Alderdi Demokratiko ordezkariak, iritzi horren berri izan eta gero, hauxe esan zuen: "Honek galdearazten digu petrolioaren etorkizuneko prezioak ez ote diren azpian dagoen horniduratik eta eskariaren oinarritik bereizi, eta lehen-gaien merkatuak ez ote diren bihurtu herritar amerikarren kontura aberasten diren eskripulurik gabeko espekulatzailentzat kasino..."

NEA: eskaintza eta eskaria

Nazioarteko Energi Agentziak, NEAk, petrolio gordinaren merkatuak gutxienez 2013 arte tentsioak jasango dituela dio. Petrolioaren prezioaren igoeraren arrazoiei dagokienez, agentziaren ikerketa zuzendari Lawrence Eagles ez dator bat erantzukizuna finantza espekulazioari egozten diotenekin.

Zentzu horretan, Eaglesek esan zuen petrolioaren prezioaren igoera espekulazioaren ondorio dela adierazten duten "zeinu nabarmenik" ez dagoela, biltegiatze mailak (stock-ak) ez baitu islatzen espekulazioa helburu duen metatzerik. NEAren esanetan, prezio altuak, batez ere, eskaintza eta eskaeraren jokoaren eta horniduraren behin-behineko mozketaren ondorio dira. ■



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 • Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 • Hernani -Gipuzkoa-

© 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com